

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Ekainaren 22an lur-jausi bat egon zen Murrategin. Bizilagun bat Kexu da dei ugari egin dituztelako ezbeharraren berri emateko. 3 zuhaitz jausi dira, eta uste du eraikinentzat arriskutsuak direla. Aurreko astera arte ez zaie kasurik egin.	Lur-jausia ikusi, eta jarraipena egiten ari dira. Lursaila partikularra denez, Udaletik eskatu zaio jabeari egin beharreko jarduketak egin ditzala.
Udaltzaingoa	Herritar baten kexa: kale horretan, jendea bereziki azkar ibiltzen da; koxka saltatuta ere, azkarregi. Zaratari eta abiadurari aurre egiteko konponbidea eskatu du. Sautxitik jaisteko patinete elektrikoa erabiltzen dute, eta arriskutsua dela uste dute.	Aztertzen ari dira abiadura neurtzeko radarra jartzea.
Zerbitzuak	Herritar batek dio uso gehiegi daudela, eta ea hori horrela ez izateko zerbait egiten den. Dioenez, asko zikintzeaz gain, gaixotasunak kutsatzen dituzte.	Mankomunitatea da uso-kopurua egonkor mantentzeaz arduratzen dena, eta horretarako hainbat jarduera egiten dituzte urtean pare bat aldiz. Guk al baitariari jakinarazten diogu une jakin batean uso kopuru handia baldin badago tokiren batean; hala ere, jakinarazi behar da habia jabetza batean, adibidez, teilatu batean, badago, hura erretiratzea jabeai dagokiela. Udala ez da inolaz ere lursail pribatuetan sartzen.
Zerbitzuak	Barrena pasealekuko kaleko gimnasioa ez dago egoera onean. Makinak ez dabilta: ez eliptika, ez beste. Nahiz eta abisua emanda egon, konpondu gabe daude oraindik.	Gaur, urriak 31, kexak aipatzen dituen kirol-makinak gainbegiratu dira. Denek funtzionatzen dute behar bezala, eliptikak izan ezik, baina hori ere konponduta geratu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila Laburpena

Zerbitzuak/Obrak	Herritar batek dio Orbeako kiroldegietako aldageletan aldamio bat dagoela, orain dela urtebete baino gehiago. Ez dakite zergatik dagoen han.	Aldamioa erretiratu egin zen egin beharreko lanak amaitu ondoren.
Udaltzaingoa	Barrena kaleko bizilagun bat kexu da inguru horretan okupak daudelako: Elorza, Telefonika. Irtenbidea eskatzen du. Horren haritik, aipatutako eraikinen jabeek arazoari ez diotela aurre egiten ikusita, beste bizilagun batek Udalaren esku-hartzea eskatzen du.	Okupatutako lokal bat bide judizialek bakarrik hustu daiteke. Lokalaren jabeek jakinarazi zaie lokala husteko nahitaezkoa dela dagokion salaketa jartzea.
Zerbitzuak	Electrocicloseko bizilagun bat hirugarrenez kexatu da sasi batzuk ez direlako guztiz moztu, baina oraindik kendu barik daudela dio. Hori horrela, eskatzen du denak kentzeko, ez hala moduz.	Gunea gainbegiratu ondoren, lorezainek esaten dute bide publikoaren mantenitze-lana aldian-aldian egiten dela. Horrez gain, inguruko lursailetatik ateratzen diren sasiak moztu egin dira. Ez dakigu zehazki zein gunez ari den, hobeto zehaztea komeniko litzateke.
Zerbitzuak	Auzokide baten kexa: Barrena kaleko edukiontzi batzuk guztiz hondatuta daude. Irtenbidea eskatzen du.	Mankomunitatea: Kaleko edukiontzi guztiak gainbegiratu ondoren, akats funtzionalak eta estetikoak konpondu ziren. Ecovidrio enpresari ere eskatu zitzaion beira aldaketaren bat egin zezala.
Policía Municipal	Hijo de Gabilondo enpresa dela-eta, herritar batek salatzen du egingo diren aparkalekuetan autokarabanak sartuko direla, eta galdetzen du ea horren inguruko araudirik dagoen. Dioenez, Zumaiako parkingean, altuera eta zabalera mugatzeko arkuak jarri dituzte.	Eibarren, gaur-gaurkoz, ez dago gai honen inguruko araudirik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Hijos de Gabilondo enpresako espazioei zein erabilera emango zaien galdetzen du, eta baita ea proiektu berriak ateak itxita izango dituen ere, gauez inor geratu ez dadin. Obrak noiz hasiko diren ere galdetzen du.	Eraikina birgaitu ondoren erabiliko den erabilera batez ere ekonomikoa izango da. Kokaleku horretan bulegoak, enpresak, coworkinga eta abar jartzea da asmoa. Horrez gain, eraikinak aisiarako guneak eta erabilera komunitariorako lokalen bat izango ditu.
Obrak	Bizilagun batek galdetzen du, Gabilondon obrak hasten direnean, non gordeko diren Amenabar enpresak dituen makinak.	Eraikinaren ekialdeko gunea eraitsi zenean, lursailean zati bat egokitu zen horretarako.
Obrak	Herritarrak galdetzen du ea Amenabarrek zenbat ordaintzen duen Hijos de Gabilondon erabiltzen duen espazioagatik.	Ez du ezer ordaintzen; obra publikoa denez, ETSren (Eusko Trenbide Sarea) eta Eibarko Udalaren artean obrarako hitzarmen bat dago-eta.
Hirigintza	Auzotar batek galdetzen du Arraguetan zer gertatzen ari den, obra amaitu eta hiru hilabeteren ondoren ere obra-hondakinak erretiratu gabe daude-eta.	Udalak bitartekotza egin zuen inguruko jabeekin, hondakinak kentzeko. Espaloia 2025ean zabaltzea aurreikusi da.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Urkizuko dorreetan dagoen garbiketa faltagatik. Lirdinga (“berdina”), erretenak. Mantentze-lanik ez dela egiten dio.	Mankomunitateak: Erretenak urtean behin garbitzen dira sakon. 2024an Aste Santuan garbitu ziren. Horrez gain, abuztuan, mantzentze-garbiketa perimetrala egin, eta “handiena” kendu zuten. Presaka aritzeko eskatu zitzaiera diote. Egokiena da abuztuan sakon garbitzea (ibilgailurik ez dagoenez, errazagoa da), baina arazoren bat egon zen. Hauek dira erabiltzen dituzten giza baliabide eta baliabide materialak: eskuz aritzen diren bi langile, langile bat

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila	Laburpena	
		eskobatzeko makinarekin eta beste bat espaloiak garbitzekoarekin.
Hirigintza	Bizilagun baten kexa: Matxaria aldean ez dago oinezkoentzako pasabiderik. Bestalde, galdetzen du ea ez dagoen asmorik edo planik ezer egiteko kontu hau dela-eta.	Bai, asmoa da Matxaria poligonoko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, batez ere geltokitik hurbilen dagoen eremuan. Horretarako, eta datorren urtean gauzatuko diren Eusko Jaurlaritzaren funtsen bitartez, proiektu bat kontratatzea eta egin beharreko gestio eta obra guztiak egitea da asmoa.
Zerbitzuak	Elektrozikloseko bizilagun batek dio ingurua ez dagoela garbi: ez da zaborra jasotzen, argiztapen- eta segurtasun-falta (puntu beltzak daude).	Mankomunitatearen GARBIKETA: Gai honi bileran bertan eman zitzaion erantzuna: Astean 2/7 egunetan garbitzen da. Kexaren ondoren, inguru guztia “zero”n jarri zen uraren bidezko makina pasatuta. Beste kexa bat egon zenez orain dela hilabete inguru, berriz pasatu zen aipatutako makina. ARGIZTAPENA: Argiztapenari dagokionez, esan beharra dago elektrikariak aldian-aldian pasatzen direla handik. Hala ere, azpimarratzekoa da instalazioak arazoak ematen dituela etengabe (sabai-argi zaharrak dituzten LEDS argiak, arnasa hartzen uzten ez dutenez, behin eta berriro hondatzen direnak). Horrez gain, konponketarako behar den materiala eskuratzea prozesu luzea da. Arazo honi erantzuna emateko behin betiko konponbidea aztertzen ari dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Herritar bat kexatzen da “Koloniales” gaineko parkean egin den garbiketaren ondorioz, kalteak sortu direlako. Konpontzea eskatu du.	Mantentze-lanez arduratzen den enpresari arazoaren berri eman ondoren, arrakala 2024ko urtarrilean konpondu zuen.
Hirigintza	Bizilagun bat Barrena aldeko birgaitze lanez mintzatzen da. Dioenez, HAPOak ez du jasotzen errepidea ateratzeko inongo asmorik, ezta Barrena auzotik errepidea atera eta oinezkoentzako egokitzea ere. Horretarako aukerarik ba ote dagoen galdetzen du. Errepidea handik kentzeko aukera aztertzea eskatzen du.	Une honetan, HAPO berria lantzen ari dira, eta, beraz, horren emaitzari begiratu beharko zaio. Planaren aurrerapenean, ez da aurreikusi errepidea kentzea, oso zaila izango bailitzateke, hiriko arteria bat delako.
Zzerbitzuak	Bizilagun bat Urkizuko garbiketaz kexu da. Dioenez, ez da egia Mankomunitatea kale horretatik egunero pasatzen dela, alegia, astean 7 egunetan.	Garbiketa korridore guztietatik egiten da astelehenetik larunbatera bitartean. Igandeetan, berriz, ez dira korridore guztiak garbitzen, kanpoaldean daudenak baino ez.
Hirigintza	Auzotar baten kexa: tabernetako terrazek espazio publikoa hartzen dute, eta oinezkoak pasatzea oztopatzen dute.	Ostalaritza-establezimenduek terrazarekin okupatu dezaketen azalera hirigintza-sailak emandako lizentzian jasotakoa da. Udaltzaingoak establezimendu horiek lizentzian ezarritakoarekin bat datozela kontrolatzen du. Betetzen ez bada, dagokion zehapen-espedientea izapidetuko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila Laburpena

Nolanahi ere, terraza-eskaera bakoitza teknikoki baloratzen du hirigintza-sailak, eta, ondoren, batzordetik pasatzen da, eta behar bezala baloratzen da, besteak beste, terrazak espazio publikoan duen eragina, eta ahalik eta erabilera gehien eta oinezkoen eta ostalarien bizikidetza baketsua bateragarri egiten saiatzen da.

Zerbitzuak

Bizilagun batek eskatzen du zenbait lorategitan kartelak jartzeko, bertan ez txakurrik ez umerik ez sartzeko.

Zenbait lorategitan dagoeneko jarri dira kartelak.

Hirigintza

Eibartar batek honako kexa hau egiten du: ea non geratzen den herritarren parte-hartzea, Hijos de Gabilondon egingo den proketuaren parte izateko aukerarik ez badute, ezta Gisastu Bidekoan ere (Txontan). Azken hori oso inguru ainubea da, eta atzeko partean mendi-magala du.

Hijos de Gabilondoren erabilera auzo-bilera ugarietan Udalari helarazi zaizkion beharizanei erantzuten die. Adibidez, aisialdirako guneak handitzeko beharra, proiektuan Barakaldo kanean eremu zabala lortzea eta aparkalekua sortzea lortzen da. Gainera, estalkia aisialdirako gunea eta kirolgunea izateko aprobetxatzen da, eta eraikina birgaitu ondoren, funtsean, udalerrian oso beharrezkoak diren jarduera ekonomikoetarako erabiltzen da. Esan bezala, horrek guztiak hiriaren beharrei erantzuten die, bertako bizilagunek planteatutakoarekin.

Gisastu Bideri dagokionez, oso proiektu garrantzitsua dago AIBE eraikina birgaitzeko eta haren ingurunea hobetzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ekialdea 2023/11/09

Saila	Laburpena	
		Beraz, kale hori hobekuntza-proiektu horretan sartu beharko da.
Hirigintza	Bizilagun baten kexa: Matxariatik Jardiñetarako bidean espalo bat desagertu egin da. Jardiñetarako sarbidearen egoeraz ere kexatzen da.	Jardiñetako auzorako sarbidea nabarmen hobetu da Herriguneko lanak amaitu ondoren. Matsariatik auzoko oinezkoen irisgarritasuna hobetzea aztertuko da, nolabait hobetu ahal izateko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek galdetzen du ea aukerarik legokeen Eibarko parkeren bat estaltzeko, egun euritsuetan erabili ahal izateko.	Horretan dihardute. Obra Sailean “tutua” duen parkea estaltzeko proiektua dago.
Alkatetzak	Bizilagun batek galdetzen du ea Barrenan zergatik ez dagoen Gabonetako argirik.	Kexa hori kontuan hartuta, aurten Udalak jarri ditu edo oso goiz jarriko ditu.